



LARRAUNGO UDALA  
(Navarra)

**JOSÉ JAVIER BARBERENA ETXARRI JAUNA, LARRAUNGO UDALEKO ALKATEA,  
GAURKO EGUNAREKIN HONAKO EBAZPENA EMAN DU:**

### **ALKATEAREN EBAZPENA**

**Zbk: 39/2018.**

**Larraun, 2018ko ekainaren 21a.**

### **AKATSA ZUZENTZEA.**

San Migeleko informazio gunerako bi langile kontratatzeko baldintzak ikusi eta baldintzetan akatsa badagoela oharturik,

Aintzat hartuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua

### **ERABAKI DUT:**

- **5. oinarrian (Oposizio-lehiaketa nola egin atalean), BAREMOA-PRESTAKUNTZAN** Ondorengo paragrafoa jarri da euskarazko pleguan: *“Bete beharreko lanpostuarekin /profilarekin zerikusia duten ikastaroak (gehienez ere 5 puntu) Aztergaiak: Aralar, Sakana, Plazaola/ Nafarroa edota Euskal herriko historia, geografia, natura, etnografia eta mitologia. Turismoarekin, aisialdiarekin, naturarekin eta taldeen gidaritzarekin zerikusia duten kurtsoak”*. Eta, beraz, horrela dion tokian, horrela behar du:

*Bete beharreko lanpostuarekin/profilarekin zerikusia duten ikastaroak (gehienez ere **10 puntu**) Aztergaiak: Aralar, Sakana, Plazaola/ Nafarroa edota Euskal herriko historia, geografia, natura, etnografia eta mitologia. Turismoarekin, aisialdiarekin, naturarekin eta taldeen gidaritzarekin zerikusia duten kurtsoak.*

- **6. oinarrian (6.1 Proba Teorikoa atalean),** Ondorengo paragrafoa jarri da euskarazko pleguan: *“Proba teorikoa (gehienez 20 puntu) Sakanaren ezagutzari eta turismo jardueri loturiko proba teorikoa, ekainaren 27an 10:00etatik 12:00etara Plazaola Partzuergo Turistikoaren egoitzan izango da (Plazaola, 21 - Lekunberri) gaia ondorengoa izanik: Sakanako geografia eta historia”*. Eta, beraz, horrela dion tokian, horrela behar du:



LARRAUNGO UDALA  
(Navarra)

*“Proba teorikoa (gehienez 30 puntu) Aralar, Plazaola eta Plazaolaren inguruko ezagutzari eta turismo jardueri loturiko proba teorikoa, ekainaren 27an 10:00etatik 12:00etara Plazaola Partzuergo Turistikoaren egoitzan izango da (Plazaola, 21 - Lekunberri) gaia ondorengo izanik:*

- **6. oinarrian (6.2 Deialdi honen xedea den lanpostuan bete beharreko eginkizunen gaineko proba praktikoa.** Gehienez 40 puntu.) Ondorengo paragrafoa jarri da euskarazko pleguan: *“Fase hau kasu praktiko baten bidez garatuko da eta erabat lotuta egongo da bete beharreko lanpostuaren ezaugarriei edo deskripzioari, bai eta pertsona lanposturako egokia den ikusteko ere, lanarekiko erakusten duen gaitasunaren araberakoa izango dena. (gehienez 60 puntu)”*. Eta, beraz, horrela dion tokian, horrela behar du:

*“Fase hau kasu praktiko baten bidez (elkarrizketa) garatuko da eta erabat lotuta egongo da bete beharreko lanpostuaren ezaugarriei edo deskripzioari, bai eta pertsona lanposturako egokia den ikusteko ere, lanarekiko erakusten duen gaitasunaren araberakoa izango dena. (gehienez 40 puntu)”*.

- **6. oinarrian GAZTELANIAZKO PLEGUAN,** Ondorengo paragrafoa jarri da pleguan: *“Esta fase se desarrollará por medio de un caso práctico y estará totalmente relacionado con las características del puesto a cubrir o con la descripción del mismo, y servirá también para comprobar si el aspirante es apropiado para el puesto de trabajo, y que se establecerá en función de la capacidad que muestre para desempeñar el trabajo. (máximo 40 puntos)”*. Eta, beraz, horrela dion tokian, horrela behar du:

*“Esta fase se desarrollará por medio de un caso práctico (entrevista) y estará totalmente relacionado con las características del puesto a cubrir o con la descripción del mismo, y servirá también para comprobar si el aspirante es apropiado para el puesto de trabajo, y que se establecerá en función de la capacidad que muestre para desempeñar el trabajo. (máximo 40 puntos)”*



LARRAUNGO UDALA  
(Navarra)

2.- Hurrengo bileran Larraungo Udaltzari ebazpenaren berri ematea, berretsi dezan.

Ebazpen honen kontra, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Larraun, 2018ko ekainaren 21a.

ALKATEA

José Javier Barberena Etxarri



IDAZKARIA

Ana Alduntzin Navarro

